

Esp.kodea: 2026PHEL0004
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Taldeburua kontratatzea "BASOLAN 3"
enplegu-formakuntza programa zuzentzeko

HAUTAKETA PROZESUAREN IRIZPIDEAK

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA/IRAUPENA
Taldeburu 1	BASOLAN 3, enplegu-formakuntza programari dagokion Baso langileen lan-taldearen zuzendaritza lanak egitea, Udaleko natur espazioen mantenuan.	6 hilabete, %75 jardunean (2026ko martxoaren 31tik 2026ko irailaren 30era aurreikusita)

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiak baldintza hauek bete beharko dituzte eta, horretarako, hautagai bakoitzak Lanbideko kurrikulumean akreditatutakoa hartuko da kontuan:

- Eskolako Graduatua, LH 1 edo baliokidea izatea edo hori lortzeko eskubideak ordainduta izatea.
- Euskera: 1. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea (akreditatua edo dagokion proba eginez).
- Baso eta natur espazioen mantenu arloan gutxienez 10 hilabeteko lan esperientzia, edo formazioa (gutxienez lanbide heziketako lehen mailako ziurtagiri profesionala baso eta natur espazioen arlo profesionaleko espezialitatearen batean).
- B gida baimena.
- Baso eta natur espazioen mantenu lanetan aritzeko osasun edo bestelako eragozpenik ez edukitzea.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, aurreko puntuan ezarritako baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIAREN AZKEN AUKERAKETA

Hautagaiaren aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiak egiaztatutako merituak baloratuz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Udaleko karrerako funtzionario bat.
- Karrerako funtzionario bat edo lan kontratudun finkoko langile bat.
- Udaleko karrerako funtzionario bat.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK



Arrasate

ATE BERRIAK ZABALDUZ

Esp.kodea: 2026PHEL0004
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: Taldeburua kontratatzea "BASOLAN 3"
enplegu-formakuntza programa zuzentzeko

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, hautagaien zerrenda, hautaketa frogen informazioa eta abar) udaleko web orrian argitaratuko dira (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko dira BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

Interesa adieraziko duten hautagaiek behean azaltzen diren probak egin beharko dituzte, eta merituen balorazioa egingo zaie, honela:

- **Merituak: (20 puntu)**
 - Euskara: 2. HE egiaztatzea (agiriz, ez da probarik egingo): 10 puntu
 - Emakumea izatea: 10 puntu.
- **Probak: (80 puntu)**
 - *Teoriko-praktikoa:* Baso lanen mantenuko arloari buruzko proba teoriko-praktikoa. 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* motibazioa, parte hartzeko prestutasuna eta aukeraren beharra neurtzeko elkarrizketa egingo da. 0-30 puntura baloratuko da eta gutxienez 15 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.